



IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK
AUKERA ANITZEKO GALDEKIZUNA
HLEA

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 puntu lortu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egokiena** aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Erantzun okerrengeatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.

1 "Larrutik ordaindu beharko dugu gutun hori sinatu izana". Zer adierazi nahi du?

- a) Azala gorrituko zaigula.
- b) Geure soldatetik ordaindu beharko dugula.
- c) Sari onak ematen ditugula.
- d) Ondorio txarrak izango ditugula.

2 "A" gripearri aurre egiteko, medikuek komenigarria ikusi zuten prebentzio-kanpainarik zabalena egitea.

- a) hainbat eta
- b) harik eta
- c) ahalik eta
- d) zenbat eta

3 Aspaldi etorri zitzaion ezkontzeko garaia, baina dago oraindik.

- a) ezkongai
- b) ezkonlagun
- c) ezkontide
- d) ezkonberri

4 Edozein aurkituko duzu Einsteini buruzko artikuluren bat.

- a) entziklopeditan
- b) entziklopedian
- c) entziklopedietan
- d) entziklopediatan

5 "Euskal gaietan izugarri aurreratu dugu eta EGUNDAINOKO mailarik altuenera helduak gara". Zein da baliokidea?

- a) Orain arteko
- b) Behin betiko
- c) Berehalako
- d) Aurtengo

6 Afaltzeko jarri ez didate onik egin.

- a) dizkidaten ostrek
- b) didaten ostrek
- c) dizkidaten ostrak
- d) didaten ostrak

7 "Asmatuko ahal du gure semeak bere bidea aurkitzen!" Zer adierazten du?

- a) Poza
- b) Desioa
- c) Etsipena
- d) Ziurtasuna

8 Martxa honetan, zahartzen garenean ez dugu izango

- a) nork jasotzerik.
- b) nork jasoko.
- c) nork jasotzea.
- d) nork jasorik.



9 Argi eta garbi dago, , egun hartan ez ginela iritzi berekoak.

- a) behin ere
- b) ote
- c) bidez
- d) beraz

10 Hipoteken interesak igotzen direnean, orduan

- a) ondo, bakoitza bere etxean!
- b) dagoenean egon eta bestela bon-bon!
- c) izango dira zorriak!
- d) izango dira kontuak!

11 Argindarra garestiago izango omen da datorren urtean.

- a) % 7a
- b) % 7
- c) % 7an
- d) % 7ko

12 Bazen garaia zu ikusteko, majo! Etxean lotuta, ala?

- a) dizute
- b) zauzkate
- c) gaituzu
- d) zara

13 Lau neska-mutil horiek sorterrri dira, baina, halere, ez diote kasurik egiten.

- a) berdinekoak / elkar
- b) berekoak / elkar
- c) berekoak / elkarri
- d) berdinekoak / elkarrekin

14 Nork eman dizu zuri hor kuxkuxean ibiltzeko baimena, alaena?

- a) begiluze
- b) hankaluze
- c) aholuze
- d) hegaluze

15 Bizikletan ez bazen, oinez; baina beti iritsiko ginen gu ordurako.

- a) nola edo hala
- b) hala bada
- c) hala moduz
- d) halatsu

16 Ongi hasi gara, baina ez dakigu nola bukatuko dugun. Hori dago.

- a) ikuspegi
- b) ikusteko
- c) ikuskari
- d) ikusmiran

17 Zenbait gaixotasun eragindakoak dira zalantzarik gabe.

- a) sedentarismoagatik
- b) sedentarismoatik
- c) sedentarismoaren
- d) sedentarismoak

18 "Ez du behin ere kale egin gure hitzordura". Zein da baliokidea?

- a) Ez gaitu behin ere salatu.
- b) Une egokian hitz egiten du.
- c) Kalezale amorratua da.
- d) Agindu bezala azaldu da beti.



19 Negua bete-betean sartu zaigu eta akabo beltzaran jartzeko aukerak. Beraz ez dago

- a) ezer egitekorik.
- b) zer egiterik.
- c) egiteko ezer.
- d) zer eginik.

20 "Irakasleak begitan hartu gaitu". Bilatu baliokidea.

- a) Bere bistan gaitu.
- b) Aukeratu egin gaitu.
- c) Gorrotatzen gaitu.
- d) Begi onez hartu gaitu.

21 "Etorriko al zara gurekin pilota partidara?" Zein da erantzun egokia?

- a) Galdetuta ere!
- b) Gustura joan ere!
- c) Nola ez naizen joango, bada!
- d) Galduta ere, noski!

22 Ekonomialari asko dago munduan, baina krisia ez zuen aurrez ikusi.

- a) inor
- b) inortxok ere
- c) inork ez
- d) batek ere ez

23 Nik ez dut batere gogorik harrikoa egiteko, baina egingo nuela esan nizun eta

- a) neure hitza jan behar!
- b) ondorioak garbitu behar!
- c) huts egin behar!
- d) agindutakoa bete egin behar!

24 Urte osoa dantzan, ez zinateke Unairen mailara iritsiko.

- a) bazabiltza ere
- b) ibilita ere
- c) ibiltzen ere
- d) aritzen ere

25 Bitorrek ez ditu arropa garestiak erabiltzen, baina dotore ibiltzen da jantzita.

- a) pixka bat
- b) guzti
- c) moduz
- d) asko

26 "Ez dago adin jakinik ondo bizitzeko". Zer adierazi nahi du?

- a) Ez dakigu noiz bizi garen ondo.
- b) Hobeto bizi gara adina kontuan hartu gabe.
- c) Edozein adin da ona ondo bizitzeko.
- d) Urteek ez gaituzte jakintsuago egiten.

27 Irakaslea iritsi zenerako barnean zeuden ikasleak; alegia, ziren.

- a) sartutak
- b) sartzen
- c) sartuak
- d) sartzeoak

28 Zeinek du adiera DESBERDINA?

- a) Etxaldea
- b) Etxekoia
- c) Etxezalea
- d) Etxezuloa



29 - Oraindik lanean gelditu behar al duzu? -, klasea prestatu gabe daukat eta.

- a) Behintzat
- b) Behingoz
- c) Beharko
- d) Bederen

30 "BIDE BATEZ esan dezagun gure zuzendaria irakasle ona dela". Zein da baliokidea?

- a) Bidenabar
- b) Bidez bide
- c) Bidezidor
- d) Bidezko

31 Adierazpen horiekin kritika guztien jarri gaituzte irakasleok.

- a) ikusmoldean
- b) joeran
- c) jomugan
- d) helbidean

32 "Gogoan al dituzu unibertsitatean emandako urteak?" Erantzun baietz.

- a) Gogoan al ditut, bai!
- b) Gogoan ez, baina golkoan bai!
- c) Izango ez ditut, bada!
- d) Zera izango ditut gogoan!

33 Hauteskundeen bigarren itzulia eta Karzai izendatu dute presidente.

- a) bertan behera utzi
- b) bertan behera bota
- c) bertan behera jausi
- d) bertan behera egin

34 Oposizioa gainditzen duzunean, gauzak lasaiago hartzea komeniko

- a) zitzaizukeen.
- b) zenuke.
- c) litzaizuke.
- d) zitzaizun.

35 Non dago H hizkia GAIZKI erabilita?

- a) Ahapaldia
- b) Leiho
- c) Leihaketa
- d) Bahiketa

36 "Atzekoz aurrera atera zaizkio asmakizun burutsu guztiak". Zein da baliokidea?

- a) Kostata, baina aurrera atera ditu bere asmoak.
- b) Uste ez bezala atera zaizkio kontuak.
- c) Atzetik aurrera egiten du burutsuak.
- d) Atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu.

37 Hiru anai-arreba dira, baina bigarrena da bizkorrena.

- a) hirutik
- b) hirutan
- c) hirutatik
- d) hiruretan

38 Igandeko kontzertuak eragin zidan zirrara buruan.

- a) nenbilen
- b) zegokidan
- c) zegoen
- d) nerabilen



39 Egon lasai eserita, ama! Zuk ez daukazu

- a) zertan sukaldea garbitu.
- b) zertan sukaldea garbitzerik.
- c) zertan sukaldea garbitu behar.
- d) zergatik sukaldea garbitu behar.

40 Euskarazko hedabideetan lekurik ez genuela izango ziguten aspaldi, baina bizirik jarraitzen dugu.

- a) debekatu
- b) opa
- c) iragarri
- d) galdetu

41 "Zuzendariaren lana garrantzitsua dela? Alde ederreko lana egiten dute irakasleek". Zer balioespen egiten du?

- a) Zuzendariaren lana gaitzesten du.
- b) Irakasleen lana hobesten du.
- c) Irakasleen lana gutxiesten du.
- d) Zuzendariaren lana goresten du.

42 "Handia da gero! Telebistako futbol partidek dute ikusle gehien!" Zer adierazten du?

- a) Poztasuna
- b) Gaitzespena
- c) Harrotasuna
- d) Adostasuna

43 Kostaldekoek bazekiten tsunamia une batetik bestera ager

- a) zedila.
- b) zezakeela.
- c) zatekeela.
- d) zitekeela.

44 Hurrengo autobusak hiruretan, lauretan eta bostetan irtengo dira

- a) hurrenez hurren.
- b) besteak beste.
- c) bide batez.
- d) batez beste.

45 Hain irrintzi luzeak egiten pertsonarik ez dut ezagutu.

- a) dituzten
- b) duten
- c) dituen
- d) duen

46 "Partida baietz Olaizolak irabazi!" Aukera ezazu jarraipen egokia.

- a) Apustu ederra egiten dut!
- b) Eskua erreko nuke!
- c) Lepoa jokatuko nuke!
- d) Golkoa beteko nuke!

47 Zenbait irakasle ez da hainbeste trebatu teknologia berrietan, gauza ez delako edo...

- a) gogoak eman ez dizkiolako.
- b) gogoak eman ez diolako.
- c) gogorik eman ez diolako.
- d) gogoak eman ez diolako.



48 Bankuan lapurreta egiteagatik berehala epaituko dute.

- a) auzitarako gaztea
- b) auzipetutako gaztea
- c) auzibideko gaztea
- d) auzitutako gaztea

49 -"Inork nahi ez badu, neuk hartuko dut zuzendaritza." - "Zera hartuko duzu zuk!" Zer erantzun dio?

- a) Primeran iruditzen zaiola.
- b) Hobe lukeela beste zerbait hartzea.
- c) Bost axola zaiola.
- d) Ez zaiola ongi iruditzen.

50 Non dago ortografia-akatsa?

- a) Urratsa
- b) Gantza
- c) Lokatza
- d) Bustana

51 Bidaia luzerik egin gabe, Euskal Herrian bertan badugu zer

- a) ikusia.
- b) ikusteko.
- c) ikustekorik.
- d) ikustea.

52 Zein dira sinonimoak?

- a) Garbia / Lohia
- b) Lehorra / Idorra
- c) Lerdena / Gardena
- d) Trebea / Traketsa

53 Kontu handiz ibili izan bagina, trumoi-zaparradak ez mendian harrapatuko.

- a) gintuzke
- b) gintuzkete
- c) zigun
- d) gintuen

54 "Ez digute utzi eztabaidan parte hartzen". Zein da baliokidea?

- a) Ukatu egin digute eztabaidan parte hartzea.
- b) Uko egin diogu eztabaidan parte hartzeari.
- c) Uko egin digute eztabaidan parte hartzeari.
- d) Ukatu egin digute eztabaidan parte hartu izana.

55 Garraio-mota da ; garrantzitsuena iristea da.

- a) gutxienekoa
- b) gutxikoa
- c) gutxiestekoa
- d) gutxienezkoa

56 "Hori jakin nahi duzu? Leku ederrera zatoz!" Zer adierazten du?

- a) Toki eder batera joan zara, baina alferrik.
- b) Zerbait galdetu dizute eta zuk horretaz ezer ez dakizu.
- c) Solaskidea toki aproposalan dagoela ikusi duzu.
- d) Leku ederrez galdetu dizute eta zu poztu egin zara.

57 Kalera irteteak on egin dio eta orain hobean ikusten dut.

- a) aldarte
- b) ikusmen
- c) pasarte
- d) zentzumen



58 "Neba-arrebak norgehiagoka ibili ziren amaren herentzia lortzearren". Nola ibili ziren?

- a) Elkar joka
- b) Elkar hartuta
- c) Elkarren ondoan
- d) Elkarren lehian

59 Goizean Ixabel ikusi dut eta ez dauka ... itxura onik!

- a) batere
- b) batere ez
- c) inon
- d) inola

60 Hala eta guztiz ere, aurrera egin genuen! adinekoak gaztetxoak, denak iritsi ginen.

- a) Orduko / garaiko
- b) Nolako / halako
- c) Nola / hala
- d) Zenbat / hainbat

61 etorkizunean gure bizimoduak jarraipenik izango duen.

- a) Inork daki
- b) Batek daki
- c) Nik dakidala
- d) Nork ez daki

62 Horrek ez du arriskurik ikusten: haitzera igo eta egin du salto putzura.

- a) etsi-etsian
- b) hotz-hotz
- c) itsu-itsuan
- d) doi-doi

63 Baratzte handia daukagu eman eta eman. Horregatik ekarri dizut.

- a) indaba poltsa bat
- b) poltsa bat indaba
- c) poltsa indaba bat
- d) indabazko poltsa bat

64 "Esne-mamitan hazi zinen zu". Zein da baliokidea?

- a) Esnekiak gogoko zenituen.
- b) Gogorregi hezi zintuzten.
- c) Zernahi izan zenuen eskura.
- d) Jatun kaskarra zinen.

65 Batere pentsatu eta ezertan erreparatu gabe ibiltzen denari esaten zaio:

- a) Gautxoria
- b) Kaskagogorra
- c) Baldarra
- d) Kaskarina

66 "Aurtengo neguan elurra gogotik egingo omen du". Zuk ere susmo hori duzula erantzun.

- a) Bada, larri ibili!
- b) Baita zera ere!
- c) Bada, gozo ibili!
- d) Bada, gogoak ikusteko!

67 Etxeko ordenagailuak 18 urte ditu eta dago.

- a) onenak emanda
- b) hautsak harrotuta
- c) tripak nahasita
- d) sitsak jota



68 Bat eta bost galdu ondoren, zaleak irten ziren futbol-zelaitik.

- a) buru-okera
- b) buru-belarri
- c) buruz behera
- d) burumakur

69 Zer bait ikusi edo entzun duelako, horren berri eman lezakeen pertsona:

- a) Berritsua
- b) Mezularia
- c) Lekukoa
- d) Erantzulea

70 "Garbigailutik jertsea lehen baino txikiagoa atera zaizu". Zer gertatu zaio?

- a) Urak hartu duela.
- b) Uretan beratu dela.
- c) Lixibak eragin diola.
- d) Urak jan duela.

**ATARIKO PROBA: ERANTZUNAK****HLEA**

1	D	11	B	21	B	31	C	41	B	51	A	61	B
2	C	12	B	22	B	32	C	42	B	52	B	62	C
3	A	13	C	23	D	33	A	43	D	53	D	63	B
4	D	14	A	24	B	34	C	44	A	54	A	64	C
5	A	15	A	25	D	35	C	45	C	55	A	65	D
6	A	16	B	26	C	36	B	46	C	56	B	66	A
7	B	17	D	27	C	37	D	47	D	57	A	67	A
8	D	18	D	28	A	38	D	48	B	58	D	68	D
9	D	19	D	29	C	39	A	49	D	59	A	69	C
10	D	20	C	30	A	40	C	50	D	60	C	70	A